**AGINDUA, INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITAKO SAILBURUARENA; HONEN BIDEZ, ALDEZ AURREKO ONESPENA EMATEN ZAIO INGURUMENEKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURETAN ZERBITZU ELEKTRONIKOEN ERABILERA ARAUTZEKO ETA INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN JARDUEREN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ERREGISTROA SORTZEKO ETA ARAUTZEKO IRAILAREN 25EKO 183/2012 DEKRETUA INDARGABETZEN DUEN DEKRETU-PROIEKTUA.**

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2019ko ekainaren 17ko Aginduaren bidez, irailaren 25eko 183/2012 Dekretua, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortu eta arautzen dituena, indargabetuko duen dekretu-proiektua egiteko prozedura abian jartzea erabaki zen.

Prozedura abian jarri ondoren, testu arauemailearen zirriborro idatzi da eta horretarako saileko teknikarien laguntza izan da.

Hasiera emateko Agindu horren hirugarren xedapenean eta eranskinean ezarritako irizpideei heldu zaie, aurreproiektuaren idazteko.

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezarritakoarekin bat, eta dagokion dekretu-proiektua dagoeneko egin denez, hura egiteko prozedurari hasiera emateko Aginduaren planteamenduen arabera egituratuta eta

**ORDEN DEL CONSEJERO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA POR LA QUE SE ACUERDA LA APROBACIÓN PREVIA DEL PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE DEROGA EL DECRETO 183/2012, DE 25 DE SEPTIEMBRE, POR EL QUE SE REGULA LA UTILIZACIÓN DE LOS SERVICIOS ELECTRÓNICOS EN LOS PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS MEDIOAMBIENTALES, ASÍ COMO LA CREACIÓN Y REGULACIÓN DEL REGISTRO DE ACTIVIDADES CON INCIDENCIA MEDIOAMBIENTAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.**

Mediante Orden de 17 de junio de 2019, del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda se acordó iniciar el procedimiento para la elaboración del Proyecto de Decreto por el que se deroga el Decreto 183/2012, de 25 de septiembre, por el que se regula la utilización de los servicios electrónicos en los procedimientos administrativos medioambientales, así como la creación y regulación del registro de actividades con incidencia medioambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Tras el inicio del procedimiento, se ha procedido a la elaboración del borrador de texto normativo, contándo para ello con la colaboración del personal técnico del Departamento.

En la elaboración del del proyecto se han tenido en cuenta las premisas recogidas en el resuelvo tercero y el anexo de la citada Orden de inicio.

En cumplimiento de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general y habiéndose elaborado ya el Proyecto de Decreto de que se trata, estructurado y acorde con los planteamientos de la Orden de inicio del

Nahi izanez gero, J0D0Z-T1Q44-BAVE bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1Q44-BAVE en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

haiekin bat etorriz, aipatutako dekretu-proiektua onartzeko izapideekin jarraitu behar da.

Hla, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikuluaren arabera, honako hau

**XEDATZEN DUT:**

**Lehena.-** Irailaren 25eko 183/2012 Dekretua, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortu eta arautzen dituena, indargabetuko duen dekretu-proiektuari aldez aurreko onespena ematea, eranskinean jasotako edukiarekin.

**Bigarrena.-** Prozeduran aurrera egitea, aurreikusitako izapideak eginez eta nahitaezko txostenak eskatuz.

procedimiento para su elaboración, procede continuar con los trámites oportunos para su aprobación.

Así, de conformidad con el artículo 7.1 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre,

**DISPONGO:**

**Primero.-** Aprobar previamente el Proyecto de Decreto por el que se deroga el Decreto 183/2012, de 25 de septiembre, por el que se regula la utilización de los servicios electrónicos en los procedimientos administrativos medioambientales, así como la creación y regulación del registro de actividades con incidencia medioambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con el contenido que se recoge en el Anexo.

**Segundo.-** Continúese con el procedimiento, realizando los trámites previstos y recabando los informes preceptivos.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren datan

**Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua**
**El Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda**

**IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ**
**(Elektronikoki sinatua)**

# ANEXO

## PROYECTO DE DECRETO POR EL QUE SE DEROGA EL DECRETO 183/2012, DE 25 DE SEPTIEMBRE, POR EL QUE SE REGULA LA UTILIZACIÓN DE LOS SERVICIOS ELECTRÓNICOS EN LOS PROCEDIMIENTOS ADMINISTRATIVOS MEDIOAMBIENTALES, ASÍ COMO LA CREACIÓN Y REGULACIÓN DEL REGISTRO DE ACTIVIDADES CON INDICENCIA MEDIOAMBIENTAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.

Con fecha 3 de octubre de 2012 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco el Decreto 183/2012, de 25 de septiembre, por el que se regula la utilización de los servicios electrónicos en los procedimientos administrativos medioambientales, así como la creación y regulación del registro de actividades con incidencia medioambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El citado decreto fue suspendido temporalmente mediante el Decreto 468/2013, de 23 de diciembre, por el que se suspende temporalmente el Decreto 183/2012, de 25 de septiembre, por el que se regula la utilización de los servicios electrónicos en los procedimientos administrativos medioambientales, así como la creación y regulación del registro de actividades con incidencia medioambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Este último fue publicado en el Boletín Oficial del País Vasco del día 20 de enero de 2014, entrando en vigor el día siguiente.

Toda vez que parte del citado Decreto 183/2012, de 25 de septiembre, resulta actualmente de aplicación únicamente a un reducido número de procedimientos, que desde su publicación ha entrado en vigor normativa más reciente en la cual se regula con carácter general y básico el derecho y la obligación, en determinados casos, de relacionarse electrónicamente con las Administraciones Públicas; y que se han puesto en servicio nuevas funcionalidades en la sede electrónica de Gobierno Vasco y nuevos sistemas de información y tramitación en el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda es preciso abordar la derogación expresa del temporalmente suspendido Decreto 183/2012, de 25 de septiembre, para evitar disfunciones en la aplicación de la normativa relativa a administración electrónica en relación a los procedimientos medioambientales que se tramitan en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Indicar, adicionalmente, que el largo periodo de suspensión temporal en el cual se encuentra el citado Decreto 183/2012, de 25 de septiembre, genera entre los operadores y las operadoras un estado de inseguridad jurídica a la cual se debe hacer frente, mediante la adopción de las medidas necesarias para definir la situación de aplicabilidad de la norma tanto en lo que concierne a las operadoras y los operadores privados implicados como a la propia Administración Pública.

El nuevo sistema de información del Departamento de Medio Ambiente, Planificación y Vivienda, INGURUNET, será el instrumento en el cual se inscribirán o registrarán aquellos actos o datos que, de acuerdo con la legalidad vigente, deban ser registrados por alguna razón de interés ambiental, situación similar a la del anterior registro que se encontraba integrado en el Sistema IKS-eeM. Asimismo, servirá de soporte al cumplimiento de las obligaciones derivadas de la Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente.

En el ejercicio de esta iniciativa legislativa se han asegurado los principios de necesidad y eficacia, debido al interés general en clarificar la situación jurídica existente en la Comunidad Autónoma del País Vasco derivado del largo periodo de suspensión temporal en el cual se encuentra el Decreto 183/2012, de 25 de septiembre. La elaboración de una medida específica de carácter normativo para derogar el decreto en suspenso existente se presenta como inexcusable, sin que puedan contemplarse otras soluciones alternativas dada la necesidad de armonizar la regulación existente.

La adecuación al principio de proporcionalidad queda justificada ya que este decreto contiene la regulación imprescindible para atender la necesidad a cubrir y ello tras constatar que no existen otras medidas menos restrictivas de derechos, o que impongan menos obligaciones a los destinatarios.

Por otro lado, La iniciativa normativa se ejerce de manera coherente con el resto del ordenamiento jurídico autonómico, nacional y de la Unión Europea, al objeto de garantizar el principio de seguridad jurídica generando un marco normativo estable, predecible, integrado, claro y de certidumbre, que facilite su conocimiento y comprensión y, en consecuencia, la actuación y toma de decisiones de las personas y empresas.

En relación al principio de transparencia, indicar que el departamento impulsor ha posibilitado el acceso sencillo, universal y actualizado a los documentos propios del proceso de elaboración de este proyecto de decreto a través del portal de transparencia de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco; asimismo, se ha asegurado que los potenciales destinatarios directos tengan una participación activa en la elaboración del proyecto de decreto, de conformidad a lo dispuesto en la Ley 26/2007, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente.

Por último, respecto al principio de eficiencia señalar que con la entrada en vigor del presente decreto se evitan cargas administrativas innecesarias o accesorias y se busca racionalizar, en su aplicación, la gestión de los recursos públicos. Así, el proyecto de norma no incorpora trámites adicionales a los contemplados en la normativa vigente y se promueve que, en materia de registros administrativos, la administración ambiental pueda cumplir sus obligaciones de registro y publicidad activa de una manera más eficiente a través de la utilización de los nuevos sistemas de tramitación electrónica.

El presente decreto ha sido sometido al trámite de audiencia a través de las organizaciones y asociaciones reconocidas por la ley que agrupen o representen a los ciudadanos afectados y cuyos fines guarden relación directa con el objeto de la disposición, a información pública y participación y consulta a otras Administraciones de la Comunidad Autónoma que puedan resultar afectadas directamente por la regulación prevista, disponiendo así mismo de todos los informes preceptivos previstos por las distintas normativas sectoriales.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, de acuerdo con lo dispuesto por el Servicio Jurídico Central del Gobierno Vasco, oídos los órganos consultivos preceptivos, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día xx de xx de 2019,

**DISPONGO:**

**Artículo único.** Queda derogado el Decreto 183/2012, de 25 de septiembre, por el que se regula la utilización de los servicios electrónicos en los procedimientos administrativos medioambientales, así como la creación y regulación del registro de

actividades con incidencia medioambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA. Inscripciones y registros ambientales.**

El nuevo sistema de información del Departamento de Medio Ambiente, Planificación y Vivienda, INGURUNET, será el instrumento en el cual se inscribirán o registrarán aquellos actos o datos que, de acuerdo con la legalidad vigente, deban ser registrados por alguna razón de interés ambiental. Asimismo, servirá de soporte al cumplimiento de las obligaciones derivadas de la Ley 27/2006, de 18 de julio, por la que se regulan los derechos de acceso a la información, de participación pública y de acceso a la justicia en materia de medio ambiente.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA. Menciones al Sistema IkseeM en otras normas o títulos autorizatorios.**

Las menciones realizadas al sistema IKSeeM en otras normas o títulos autorizatorios otorgados se entenderán realizadas a los correspondientes canales, sistemas o aplicaciones informáticos puestos a disposición por parte de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi para posibilitar la relación de los interesados en procedimientos de carácter ambiental a través de medios electrónicos.

**DISPOSICIÓN FINAL. Entrada en vigor**

El presente decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de País Vasco.

# ERANSKINA

## DEKRETU PROIEKTUA ZEINAREN BIDEZ INDARGABETZEN BAITA INGURUMENEKO ADMINISTRAZIO-PROZEDURETAN ZERBITZU ELEKTRONIKOEN ERABILERA ARAUTZEA ETA INGURUMENEAN ERAGINA DUTEN JARDUEREN EAEKO ERREGISTROA SORTZEA ETA ARAUTZEA XEDE DITUEN IRAILAREN 25EKO 183/2012 DEKRETUA.

2012ko urriaren 3an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, irailaren 25eko 183/2012 Dekretua argitaratu zen, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzeko eta ingurumenean eragina duten jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko erregistroa sortzeko eta arautzeko zena.

Dekretu horren indarraldia etenda geratu zen; izan ere, abenduaren 23ko 468/2013 Dekretuaren bidez aldi baterako eten zen Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzea eta ingurumenean eragina duten jardueren EAEko erregistroa sortzea eta arautzea xede dituen irailaren 25eko 183/2012 Dekretua. Azken dekretu hori 2014ko urtarrilaren 20ko EHAAn argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean.

Kontuan hartu da irailaren 25eko 183/2012 Dekretua aplikagarria dela prozedura bakan batzuetan, eta, argitaratu zenetik, arau berriagoak jarri direla indarrean. Zehatzago esanda, arau berri horietan arautzen da, modu orokor eta oinarrizko batean, administrazio publikoekin elektronikoki komunikatzeko eskubidea eta betebeharra dagoela kasu jakin batzuetan. Gainera, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan funtzionalitate gehiago eta informazio- eta izapidetze-sistema berriak jarri dira. Hori dela eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailean ezinbesteko suertatu da aldi baterako etendako irailaren 25eko 183/2012 Dekretuaren berariazko indargabetzeari ekitea, administrazio elektronikoari buruzko arauak aplikatzeko orduan disfuntziorik izan ez dadin Euskal Autonomia Erkidegoan izapidetzen diren ingurumen-prozedurei dagokienez.

Horretaz gain, adierazi behar da irailaren 25eko 183/2012 Dekretuak horren etenaldi luzea izateak operadoreei segurtasun falta eragin diela eta, egoera horri aurre egiteko xedez, arauaren aplikagarritasuna definitzeko behar diren neurriak hartu behar direla bai operadore pribatuei dagokienez bai Administrazio publikoari berari dagokionez.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Ingurunet informazio-sistema berria baliatu beharko da indarrean diren legeen arabera ingurumen-interesagatik nahitaez erregistratu behar diren egintzak edo datuak inskribatzeko edo erregistratzeko. Egoera, beraz, erregistroa IKS-eeM sisteman txertatuta zegoenaren antzekoa da. Halaber, uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ezarritako betebeharretarako euskarria izango da sistema hori. Izan ere, lege horretan arautzen dira ingurumen-arloan informaziorako irispidea izateko, publikoki parte hartzeko eta justiziara iristeko eskubideak.

Legegintzako ekimen honetan, beharrizanaren eta eraginkortasunaren printzipioak bermatu dira, interes orokorra egon baita Euskal Autonomia Erkidegoko egoera juridikoa argitzeko, irailaren 25eko 183/2012 Dekretuaren aldi baterako etenaldi luze horren ondorioz. Ezinbesteko bihurtu da etendako dekretua indargabetzeko arauzko neurri espezifiko bat egitea, eta, dauden arauak harmonizatu beharra kontuan hartuta, ezin da bestelako aukerarik hartu.

Proportzionaltasun-printzipioarekiko egokitzapena justifikatuta dago, dekretu honetan ezinbesteko arauak daudelako bete behar den beharrizan horri erantzuna emateko, eta argi ikusi delako ez dagoela eskubideak gutxiago murrizten duen bestelako neurririk, edo hartzaileei betebehar gutxiago ezartzen dienik.

Bestetik, ekimen arauemaile honi ekiteko, autonomia-erkidegoko, estatuko eta Europar Batasuneko ordenamendu juridikoarekiko koherentziari erreparatu zaio, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzeko xedez; horretarako, arau-esparru egonkor, aurresangarri, integratu, argi eta ziur bat sortu da, erraz ezagutu eta uler dadin eta, ondorioz, pertsonek eta enpresek errazago jardun dezaten, eta erabakiak errazago hartu.

Gardentasunari dagokionez, adierazi behar da sail sustatzaileak sarbide erraz, unibertsal eta eguneratu bat gauzatu duela dekretu-proiektu hau egiteko prozesuko berezko dokumentuetara iristeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren gardentasunaren ataritik, hain zuzen. Halaber, bermatuta utzi du hartzailegai zuzenek dekretu-proiektua egiten parte-hartze aktiboa izateko aukera, uztailaren 18ko 26/2007 Legean xedatutakoarekin bat, zeinaren bitartez arautzen baitira ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, parte-hartze publikoa izateko eta justizia erabiltzeko eskubideak.

Azkenik, efizientziaren printzipioari dagokionez, adierazi behar da ezen, dekretu hau indarrean jarrita, behar ez diren karga administratiboak edo osagarriak kenduko direla; izan ere, dekretua aplikatzeko orduan, baliabide publikoen kudeaketa arrazionala lortu nahi da. Beraz, arau-proiektuak ez die izapide osagarririk gehituko indarreko araudian adierazitako izapideei, eta administrazio-erregistroen arloan sustatzen du ingurumen-administrazioak modu eraginkorrago batean bete ahal izatea bai erregistro-betebeharrak bai publizitate aktiboaren betebeharrak, izapidetze elektronikoko sistema berriak erabilita.

Dekretu honi entzunaldi-izapidea egin zaio xedapenaren xedearekiko lotura zuzena duten edo haren eragina izango duten herritarrak bildu edo ordezkatzen dituzten erakunde edo elkarte legez aitortuen bidez; halaber, informazio publikoaren, parte-hartzearen eta kontsultaren izapideak ere bete dira. Eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuei kontsulta egin zaienez, sektore-arauek ezarritako nahitaezko txosten guztiak ere eginda daude.

Hori dela eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren proposamenez eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiak xedatutakoarekin bat etorriz, nahitaezko kontsulta-organoei entzun ondoren, eta Gobernu Kontseiluak 2019ko XXaren XX(e)(a)n egindako bilkuran gaia aztertu eta onetsi ondoren, hau

**XEDATZEN DUT:**

**Artikulu bakarra.–** Indargabetuta uztea irailaren 25eko 183/2012 Dekretua, Ingurumeneko administrazio-prozeduretan zerbitzu elektronikoen erabilera arautzea eta ingurumenean eragina duten jardueren EAEko erregistroa sortzea eta arautzea xede dituena.

**LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Ingurumeneko inskripzioak eta erregistroak.**

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Ingurunet informazio-sistema berria baliatu beharko da, indarrean diren legeen arabera ingurumen-interesagatik nahitaez erregistratu behar diren egintzak edo datuak inskribatzeko edo erregistratzeko. Halaber, uztailaren 18ko 27/2006 Legeak ezarritako betebeharretarako euskarria izango da sistema hori. Izan ere, lege horretan arautzen dira ingurumen-arloan informaziora iristeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara iristeko eskubideak.

**BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Beste arau edo baimen-titulu batzuetan IKS-eeM sistemari egindako aipamenak.**

Beste arau batzuetan edo emandako beste baimen-titulu batzuetan IKS-eeM sistemari egin zaizkion aipamenei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak bitarteko elektronikoen bidezko ingurumen-prozesuetako interesdunekiko harremanak ahalbidetzeko eskura jarritako bestelako kanal, sistema edo aplikazio informatikoei egindako aipamen gisa ulertuko dira.

**AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.**

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera jarriko da indarrean.